

Euskal Herriko Mendi eskiko Kopa/Txapelketen inguruko iritzia EMFri

Idatzi hau ez da ez federazioaren, ez eta lasterketa batzuren aurka, justu kontrakoa, elkarrekiko errespetuan oinarriturik erlazio berriak sortzekoa baizik. Idatzi honekin mendi eskiko lasterkari batzuk daukagun sentsibiltatea jakinarazi nahi diogu Euskal Mendizale Federazioari.

1-Izaera

Euskal Herriko Mendi Eskiko banakako txapelketa aurten Espainiako txapelketarekin batera izan da Causiat Extreme* Candanchuko proban.

Lasterketa horretan, momentu batean ere ez da Euskal Herriko mendi eskiko txapelketa jokatzeko denik aipatu. Aldiz, aipamen guztiak izan dira Espainiako Mendi eskiko txapelketarentzat.

Usten dugu Euskal Herriak daukan lekua ez dela ez onartu eta are gutxiago errespetatu.

Guretzat federazio bat ez dago bestearen menpe, biak maila berean baizik. Are gehiago, gutariko askok ez daukagu FEDMEko txartel gehigarria, beraz, Espainiako ez da inondik inora gure lasterketa.

Ulertzen dugu horrela bizi ez duenik egongo denik ere, eta gure sentimendua bezain errespetagarria dela usten dugu.

Horregatik, federatuak garen aldetik, etorkizunean politika albo batera uzteko eskatu nahi diogu federazioari. Elkar errespetatuko garen eta denok eroso egongo garen egoerak bilatu eta bultzatzen eskatu nahiko genuke idatzi honen bitartez, bakoitzaren nortasuna errespetatuko den lekua bermatuz.

Horrela bada, Euskal Federazioari eskatu nahi diogu Euskal Herriko kopa nahiz txapelketak ez daitezela Espainiako/Frantsiako kopa edo txapelketekin batera egin.

*Etorkizunean hobetzeko proposamen bezala, lasterketa horretan ez zen Mendi Eskiko Lehiaketan EMFko araudiko 2.1.4 artikulua dakarrena bete:

Beste kopa edo txapelketa batzuk dauden lehiaketetan, Euskal Herriko Kopa edo Txapelketako parte-hartzaileek lehentasuna izango dute kokapenean.

[http://www.emf-fvm.org/archivos/deportes/Reglamento_Esquel_Montana_EMF-A7nov15\(eus\).pdf](http://www.emf-fvm.org/archivos/deportes/Reglamento_Esquel_Montana_EMF-A7nov15(eus).pdf)

2-Hizkuntza

EMFko estatutuetako XI artikulua hizkuntza normalizazioari egiten dio aipamena. Bide horretan, Euskal Mendizale Federakundeari eskatzen diogu Euskal Herriko Mendi Eskiko kopa nahiz txapelketetan, hala nahi dugunontzat, Euskararen presentzia bermatzea. Lasterketa batzutan, izenemateak, lasterketaren inguruko informazioa, breafingak, sinatu beharreko dokumentu eta abarrak ezin izan ditugu euskaraz eduki. Euskaldunon hizkuntza euskara danetz, beste hizkuntzeri ezer kendu gabe, gure federazioa tartean dagoen lasterketetan guk daukagun euskaraz bizitzeko eskubidea eskatu nahi dugu.

3-Federazioak sakabanatzeko nahiaren gaineratik batzen gaituena askatasunez

1924 urtean Elgetan sortu zuten Euskal Alpinismo Federazioa / Euskal-Nafar Alpinismo Federazioa (Federacion Vasca de Alpinismo-Federación Vasco Navarra de Alpinismo).

Euskal Herriari osotasun bat eman nahiean, esaterako, 1972 urtean sortutako Baionako Añamendi mendi kluba federazio honetan sartu zen.

1985 urtean Euskal Mendizale Federazioa Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako probintziek bakarrik osatzera pasa zen eta Nafarroako federazioa beste alde batetik jarri zen erabaki politikoengatik.

Politiken gainetik, elkarrekin jarraitzeko gogoari kasu eginez, elkarlan konbenio bat sinatu zen Besaiden aipatutako federazioen artean, eta horri esker elkarrekin ekintzak antolatzen jarraitu ahal izan zuten.

2016ko urriaren 9an, Besaiden 27 urte lehenago sinatutako elkarlan konbenio hura aldarrikatuz mendi martxa bat egin zen EHko erdigunera (Erdigune Martxa 2016), eta guk ere aldarrikapen bera egin nahi dugu araudia eskutan hartuta

Mendi eskiko Lehiaketan Araudian Koparako 2.1.5 artikuluan zera jartzen du:

Parte-hartzaile guztiek dagokion urteko EMFren lizentzia izan behar dute, edo, bestela, EMFk onartutako beste federazio-lizentzia bat, eta erantzukizun zibileko aseguruia kontratatuta dutela eta beharrezko estaldura duen istripu-asegurua badutela erakutsi behar dute lasterketa hasi aurretik

Txapelketarako 2.2.5 artikuluan zera jartzen du:

Euskal Herriko Txapelketan parte hartu ahal izateko, parte-hartzaile guztiek EMFren lizentzia izan behar dute, edo, bestela, EMFk onartutako beste federazio-lizentzia bat, eta erantzukizun zibileko aseguruia kontratatuta dutela eta beharrezko estaldura duen istripu-asegurua badutela erakutsi behar dute lasterketa hasi aurretik

[http://www.emf-fvm.org/archivos/deportes/Reglamento_Esquel_MontaNa_EMF-A7nov15\(eus\).pdf](http://www.emf-fvm.org/archivos/deportes/Reglamento_Esquel_MontaNa_EMF-A7nov15(eus).pdf)

eta 2.2.7 artikuluan zera aipatzen du

Lehiaketa amaitutakoan, 2 sailkapen aterako dira: sailkapen batean, parte hartu duten kirolari guztiak agertuko dira, eta probako sariak zehaztuko dira; bestean, Euskal Herriko Txapelketako podiumera igotzeko aukera duten parte-hartzaileak adieraziko dira, 2.2.5 atalean zehaztutakoa kontuan hartuta.

Aurten Senpereko Pantxo Saint-Martin mendi eskiatzaileari ez zaio txapelketan parte hartzea onartu, Euskal Herrian jaioa izan arren, EHTik kanpoko federazio batetan dagoelako federatua.

Etorkizuneko txapelketetan Euskal Herriko Txapelketako podiumera igotzeko aukera Besaideko konbenioaren arabera (hots, Euskal Herritar guztieri zabaldua) egitea proposatzen diogu federazioari, beti ere lasterkaria Euskal Herrian jaioa edo/eta Federatua baldin bada, eta askatasunez txapelketa edo kopan kontutan hartzeko eskaria egin badu.

Horretarako, ondo legoke izenematea egiterako orduan eskiatzaileari galdetzea Euskal Herriko Txapelketan parte hartu nahi ote duen, eta Federazioak aldeztu aurretik jakinaraztea lasterkariari sailkapenean onartuko duten edo ez. Eskiatzailearentzat nahiz federazio eta gainontzeko lasterkarientzat egokiena litzatekeela deritzogu, azken orduko ezustekorik ez egoteko.

4-EHko kopa EHn

6 proba arte prestatu ahal direla dio arautegiko 2.1.2 artikulua.

Causiat, Altitoy edo Regili ezer kendu gabe, Nafarroako txapelketa ere Linzan egiten dela gogoratuaz, baina batez ere Bandres Karolo memorialaren espirituari eutsiaz, Aizkorri-Aratz, Gorbeia edo Euskal Herrian eskiatzaileok baldintza onak daudenean aprobetxatzen ditugun txokoetan lasterketa bat egiteko aukera zabalik lagatzea gustatuko litzaiguke.

Idea erromantiko bezain zaila dela jakin arren, baldintzen arabera proba bat gehiago egiteko aukera egutegian zabalik lagatzea polita litzateke, eta ideia horretan elkarlana eskatzen diogu federazioari.

Idatziaren sarreran aipatu dugunez, gure sensibilitatea eta momentu batzutan eduki dugun ezinegona gure federazioari adierazteko saiakera bat besterik ez da honako eskutitz hau, kritika eraikitzaile bat egiteko asmoz sortua, denok eroso egongo garen federazio bat lortzeko.

Kontutan hartuko gaituzuelakoan, honakoa sinatzen dugu Mendi Eskiatzaile hauek: